

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 759/2015 Foru Agindua, abenduaren 17koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 770/2014 Foru Agindua aldatzen duena, abenduaren 10ekoa, zeinak 187 eredu onartzen baitu; eredu hori talde inbertsioko entitateen kapitalaren edo ondarearen azkioei edo partizipazioei buruzko informazio aitortpena egiteko da, eta bai ere akzio edo partizipazio horiek eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenta edo ondare irabazien gainean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga direla-eta egindako atxikipenen eta konturako sarrerren urteko laburpena egiteko. Urteko laburpena

Foru Agindu honen helburua da 770/2014 Foru Agindua aldatzea, zeinak 187 eredu onartu baitzuen, hartara orobat aldatzearen "bazkidearen edo partaidearen ondare irabazi edo galera" eremuaren deskripzioa, lurralde erkideko araudian izandako aldaketei egokitzearen.

Ikusirik Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horri buruz emandako txostena.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 770/2014 Foru Agindua, abenduaren 10ekoa, 187 eredu onartzekoa; eredu hori talde inbertsioko entitateen kapitalaren edo ondarearen azkioei edo partizipazioei buruzko informazio aitortpena egiteko da, eta bai ere akzio edo partizipazio horiek eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenta edo ondare irabazien gainean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga direla-eta egindako atxikipenen eta konturako sarrerren urteko laburpena egiteko. Urteko laburpena.

187 ereduaren euskarri ordenadorez zuzenean irakurtzekoa (abenduaren 10eko 770/2014 Foru agindu horren II. eranskinean onartu zen) disein fisiko eta logikoetan sartutako aldaketa hauei egokitu behar zaie:

Aldatu egiten da "BAZKIDEAREN EDO PARTAIDEAREN ONDARE IRABAZI EDO GALERA" eremuaren deskribapena (2 erregistro mota, "Aitortuaren erregistroa"; 157-170 zuriuneak), eta honela geratzen da.

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
157-170	Alfanumerikoa	<p>BAZKIDE EDO PARTAIDEAREN ONDARE IRABAZI EDO GALERA</p> <p>"ERAGIKETA MOTA" eremuak "E", "C", "G" edo "H" balioa hartzen duenean, dagokion ikurrarekin adieraziko da bazkide edo partaidearen akzioa edo partizipazioa besterentzeko eragiketari dagokion ondare irabazi edo galeraren zenbatekoa.</p> <p>Eremu honetan bi atal daude:</p> <p>157 ZEINUA: eremu alfabetikoa.</p> <p>Partizipazioa edo akzioa besterentzeko eragiketaren emaitza ondare galera izan bada, "N" jarri behar da. Bestela, hutsik utzi behar da.</p> <p>158-170 ZENBATEKOA: eremu numerikoa</p> <p>Zenbatekoak euro zentimoetan eman behar dira; beraz, ez da behar komarrik.</p>

AZKEN XEDAPENA

Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean, eta, lehenengoz, 2015. urteko informazioa dela-eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren aitorpenei aplikatuko zaie.

Gasteiz, 2015eko abenduaren 18a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ